

## **BALOREZKO PROPOSAMENA:**

Bost bazkidek aukeratu dugu produktu hau egitea, denbora eta lana aurrezten duelako, originala delako, erosketako zerrenda egiten zaudenean gauza asko ahazten zaizkizunez, honekin behar duzun guztia erosiko duzulako, pentsatzea gutxitzen duelako. Hozkailua betetzeaz pendiente egon ordez beste gauza batzuetan arreta jartzea uzten du, hozkailua bera arduratzen delako zerbait bukatu edo falta denean abisatzeaz.

Horrez gain, hozkailu bakoitzak aipatutako zerrenda pertsonalizatzeko aukera emango du, bezeroaren beharretara moldatu ahal izateko. Horretarako, erabiltzaile bakoitzak behar dituen elikagaiak jakinaraziko dizkio hozkailuari aplikazio eta eskanerraren bidez.